

# Zalaparta sukaldean

Jarduera honen bidez, ikusarazi nahi dugu mutilak eta neskak berdinak direla edozein lan egiteko.

*Sexu* hitza erabiltzen da gizonen eta emakumeen ezaugarri anatomiko, fisiologiko, psikologiko eta afektiboak adierazteko; *genero* hitza, berriz, erabiltzen da sexu bakoitzari esleitzen zaizkion gaitasunak adierazteko, gizartean gizonari eta emakumei eman zaizkien eginkizunen ondorioz. Halakoetan oinarrituz estereotipo kulturalak sortu dira, gizarteak gizonengandik eta emakumeengandik zehazki zer espero duen erakusten dutenak. Aukeretan benetako berdintasuna lortu ahal izateko, ezinbestekoa da hezkuntzan diskriminaziorik ez egitea mutilen eta nesken artean erantzukizunak esleitzeko orduan.

Hori dela eta, jarduera honen bidez ideia garrantzitsu hauek landu nahi ditugu:

- Mutilak ez daude nesken gainetik.
- Inork ez du pentsatu behar besteen gainetik dagoela.
- Garrantzitsua da lana taldean egitea, gauza batzuk hobeto egin ahal izateko.

Ipuin honetan, «mutiltzat» joko ditugu tresna batzuk, eta «neskatzat» beste batzuk. (Itzultzailearen oharra: jarduera hau gaztelaniaz dago pentsatuta eta euskarara ekartzean galdu egiten du zentzua, gaztelaniaz tresnaren izenaren artikuluari begiratzen baitiote emea edo arra den ebazteko).

## Ipuina irakurri baino lehen egiteko jarduera

Lehen Zikloan, edo egokia iruditzen zaizuen edozein egoeratan, kontakizuna irakurri baino lehen, jarduera hau egin dezakezue.

Esan ikasleei sukalde batean bazkalorduan gertatutako ipuin bat entzutera doazela. Mahai-tresnak dira ipuineko protagonistak: «mutilak» dira batzuk, «neskak» beste batzuk.

Hemengo zerrenda honetan oinarrituz, azaldu ezkerreko zutabeko tresnak mutiltzat joko ditugula, eta eskuinekoak neskatzat. (Itzultzailearen oharra: gaztelaniaz errazagoa da jarduera, aski baita hitzak aurrean daraman artikulua maskulinoa edota femeninoa den begiratzea).

Mutilak	Neskak
Sardexka	Koilara
Platera	Kopa
Edalontzia	Pitxerra
Labana	Ezpain-zapia
Gatzontzia	Aiztoa
Burruntzalia	Burruntzia
Mahai-zapia	Katilua



Hobeto ulertzeko, errepasatu zerrenda hainbat aldiz, jolas honen bidez:

- «Mutila» den tresna baten izena ozen esaten dugun bakoitzean, zutitu daitezela gelako mutil guztiak.
- «Neska» den tresna baten izena ozen esaten dugun bakoitzean, zutitu daitezela gelako neska guztiak.

### **Ipuina irakurri ondoren egiteko lana**

Ipuina irakurri ondoren, beharrezkoa iruditzen bazaizue, galdera batzuk bota, adi egon direla eta ipuinaren edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi bakoitzaren ondoren, BAI edo EZ esan beharko dute.

- Mutilek uste zuten neskek mutilek baino hobeto egiten zituztela gauzak.
- Labanak esan zuen mutilak direla nagusi.
- Mutilek esan zuten haien laguntzarik gabe neskek ezin izango dutela bazkaria zerbitzatu.
- Neskek ez zuten jakin nola moldatu eta bazkaria nola zerbitzatu.
- Mutilek ez zuten barkamena eskatu hobeak zirela esateagatik.

Gero, edukiaren gainean hausnartu.

- Zenbat pertsonaia agertzen dira ipuinean?
  - Gogoratzen al dituzue haien izenak?
  - Idatz itzazue arbelean, istorioan sakondu baino lehen.
  - Zergatik erabaki zuten tresna «mutilek» mahaitik joatea? «Neskek» lortu al zuten bazkaria zerbitzatzeari? Nola?
  - Ondoriorik atera al duzue ipuin honetatik?
- Komentatu eta azaldu garbi geratu ez diren alderdiak.
- Zer da ipuinetik gehien gustatu zaizuen? Zergatik?